

Bero-beroan

Eremu erdaldunetik mistora lau udalerrri

IRUÑERRIKO (NAFARROA) Aranguren, Galar, Beriain eta Noain Elortzibar herriak aspalditik ari ziren eskaera egiten, eta azkenean, Nafarroako Foru Erregimeneko Batzordeak, 1986az geroztik ukitu ere egin ez den Euskararen Legea aldatzeko proposamena onartu du. Nafarroako Ezker Batuak aurkeztutako lege-proposamena Nafarroa Bai eta PSN alderdiek babestu dute eta UPNk eta CDNk eman dute aurkako botoa.

Hizkuntza gutxituen gaia Frantziako Legebiltzarrean

HISTORIAN AURRENEKOZ Frantziako Legebiltzarreko gai ordenean sartu dute hizkuntza gutxituen auzia. Maiatzaren zazpiko bilkuran Europako

Hizkuntza Gutxituen Ituna izango da ardatz nagusietakoa. Nicolas Sarkozy Frantziako lehendakariak hauteskunde kanpainan ituna berrestearren kontra dagoela adierazi zuen.

“Hizkuntzen Egituren Munduko Atlas” on-line

OXFORD UNIVERSITY PRESS-EK (Britania Handia) jarri du on-line WALS delakoa, alegia *The World Atlas of Language Structures*. Sarean dagoena 2005ean liburu eta CD-ROM formatuan argitaratu zutena da. Datu-base horretan 2.650 hizkuntzen egiturak aztertzeko informazioa dago, 40 hizkuntza aztertzailek egindako lanen bidez. Besteak beste, fonologia, lexikoa eta gramatika ezaugarriak aurki daitezke. Informazio biltegi handia da sarekoa. Alabaina, Sareko ARGIAN erabiltzaile batek kontatu duenez, CD-ROMeko akatsak ez dituzte zuzendu.

TomTom GPSa aurki euskaraz

EUSKARATZEN ARI DIRA. Hala irakurri dugu bederen Mikel Iturriaren *Harrikadak* eta Iban Arantxabalen *Etxebarri* blogetan. Taldean ari dira itzulpenak egiten, grabaketak prestatzen... Datarik eman ez badute ere laster TomTom modeloko GPSak euskaraz gidatuko gaitu.

VI. Tesi Sariak abian

ELHUYAR FUNDAZIOAK ikertzaile gazteen lanak saritzeko antolatu du eta Euskal Herriko edozein unibertsitatean 2007an egindako zientzia edo teknologiako doktore tesiaren laburpena maiztaren 30a baino lehen aurkeztu behar da. Ekainaren 2tik aurrera www.basqueresearch.com webgunean ikusi ahal izango dira lan guztiak eta irabazleen berri ekainaren 16an eman go dute.

TALAIAN

Hiru egunetik behin langile bat hiltzen da

Munduan egunero 6.000 langile hiltzen dira lan istripuetan edo laneko gaitortasunen ondorioz. Euskal Herrian hiru egunetik behin langile bat hiltzen da. 2007an 125 langile euskaldun hil ziren. Aurtengo lehen lauhilekoan 30 hil dira, gutxienez. Lan munduan bizi den egoera larriak bat egiten du apirilaren 28an Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANEren) babespean ospatutako Laneko Seguratasun eta Osasunerako Nazioarteko egunarekin. Horregatik, LANEk munduan dauden lan istripuen kopuru orokorra ere eman du. Europar, urtean 167.000 lan-heriotza gertatzen dira, 457 langilek galtzen dute bizia egunero.

Hainbeste langileren heriotza ezin daiteke kasualitate hutsa izan. Akatsak daude ahalik eta irabazirik handiena kosturik txikienarekin bilatzen duen sistema ekonomikoaren egiturari. Giza kostuak, langilearen biziak, ez zaizkio axola sistemari. Onartu eta haiekin bizi da, izan ere, heriotza tarteko izanik ere euren negozioak beti dira errentagarriagoak. Aipatutako akats horietako bat, bereziki gazte eta immigranteei eragiten dien prekarietatea eta lanaren aldi batekotasuna dira. Hego Euskal Herriko urteko lehen hiruhilabetekoaren azken datuak dio prekarietatezko kontratuak igo egin direla: modu honetako 12.642 kontratu gehiago daude aurreko urteko garai berean baino eta 2.639 kontratu mugagabe gutxiago. Euskal enpresetako eguneroko lan historiak bermatzen du prekarietatearen hilkortasuna. Atentatu baten aurrean bizi hain sutuki defendatzen duten politikariek zer egiten dute euren legebiltzarretan langileen bizi eta osasuna defendatzeko? Bestaldera begiratu.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Irati Jimenezek *Berrian* esanak: “Ez dut nahi euskara garbia. Euskara zikina nahi dut, pornografia. Egunkari faxistak nahi ditut euskaraz eta errieta gordina, supermerkatuaren ilaran haserretzen diren andreen artean. Euskaraz artikulua iraingarria irakurri, euskaraz liburu txarra, euskaraz kultura merkea, euskaraz telesail txotxoloa, euskaraz Miss EzDakitZer lehiaketa negargarria. Euskaraz abesti jasangaitza. Euskaraz zine aktore guapoei buruzko idatziak hamabost urteko neskatoen koadernoetan. Euskaraz esatea batek ‘españolista zikina!’ eta euskaraz besteak ‘terrorista makurra!’”.

Aitzol Altuna historia ikertzaileak *Berrian* esanak: “Diglosia hutsean bizi gara. Gizartearen ahalegina ez da nahikoa, historiak frogatzen duenez. Gaelikoak berak ere etorkizun hobea du. Edozein gerra edo kontrako egoera politikoa agertu, eta euskarak behera egingo du, eta etorri, etorriko dira. Ez dugu babes politikorik, eta horrela ez dago etorkizunik”.